198
uztaila 2019

gida

tolosaldea + goierri + urola garaia

zum
ediziook

hemen dira festak

VG
Ventanas Goierri

Maite duzun hori babesten dugu
Protegemos lo que más quieres

943 72 53 15
www.goierriventanas.com

Bai Reformas

ERAIKUNTZAK - ERREFORMAK

ERRESTAURAZIOAK - BARNE DISEINUA

C/Ezkiaga, s/n - Beasain 20200

943 88 76 40 - 677 577 339

info@baireformas.com

www.baireformas.com

Jarraitu gure facebooka



gida

198. Alea. 2019ko Uztaila
ZUM EDIZIOAK S.L.
Patrizio Etxeberria, 7
20230 Legazpi
Tfnoa. 943 73 15 83-639 21 89 40
E-maila: zum@zumedizioak.com
gida.aldizkaria
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak
Lege Gordailua: SS-534-2015

Erredakzioa: Josema Azpeitia.
Kolaboratzaileak: José Luis Padrón, José Angel Igarzabal, Asier Zaldua, Marta San Sebastián, Juanma Garmendia eta Javier Mosquera
Argazkiak: Ritxar Tolosa, Josema Azpeitia, Carlos Mediavilla...
Diseinua: Truke Estudio Grafikoa
Maketazioa: Ritxar Tolosa eta Josema Azpeitia

PUBLIZITATEA:
UROLA (692 79 59 71)
GOIERRI/TOLOSALDEA:
(Iñigo Etxenike 655 74 46 57)

ZUM EDIZIOAK-ek Gida hau banatzen du hiru hilabetean behin Urola Garaia, Goierri eta Tolosaldeako 600dik gora tokitan, bere orrietan iragartzen diren denda eta entrepresen laguntzari esker.

ZUM EDIZIOAK reparte trimestralmente esta guía en más de 600 puntos de Urola Garaia, Goierri y Tolosaldea, gracias a la colaboración de los comercios y empresas que se anuncian en sus páginas.

KULTUR edo KIROL TALDEAK: Zuen ekintzei buruzko informazioa modu zuzenean jakinarazi diezagukezue ZUMeko helbide, telefonoa, faxa edo posta elektronikoa erabiliz.
agenda@zumedizioak.com

GRUPOS CULTURALES o DEPORTIVOS: Podéis hacernos llegar directamente la información sobre vuestras actividades a la dirección de ZUM, o haciendo uso del teléfono, fax o correo electrónico:
agenda@zumedizioak.com

Zerukotik lurrekora

Ehun urte dira 'Zeruko Argia' sortu zela Nafarroako herrixka bateko komentu zahar nobizio euskaltzalez betean. Mende oso bateko ibilbidea ospatzeko, Zerukotik lurrekora ziklo berezia egin zen maiatzean.

Placido Mujika Diccionario Castellano-Vasco ezagunaren egilea da. Urnietan jaio zen 1906an, eta Loiolan hil, 1982an. Hamahiru urterekin Andoaingo seminarioan sartu zen interno eta, gero, hamaseirekin Azpeitiko Loiolan jesuita.

Junioratuan euskarazko irakaslea izan zen. Ikasle haien artean utzi zuen arrastorik, handiena, beharbada, Mujikaren ikasle izandako Gotzon Garaterengan, orduan hasi baitzen hura euskaraz idazten.

Mujikaren gelara joaten zen Garate, eta han egoten zen Mujika, bere hiztegia egiten. Guztia eskuz egiten zuen, fitxekin. Oinetako kaxak zeuzkan, eta han sartzen zituen fitxok. Ikusgarria omen zen haren gela oinetako kaxaz betea ikustea.

Eta azkenean bukatu zuen hiztegia, 1965. urtean. Hitzaurrean Mujikak berak esaten digu nola hartu zuen lan hori egiteko asmoa.

Lurrean paper zimur bat aurkituta erabaki zuen, 1929an. Kolonbian zegoen, ikastetxe batean hiru urteko maisualdia betetzen.

Hiru urte haietan ibilaldi ugari egin zuen Andesetako mendi handietan. Behin, hiru mila metrotik goragoko mendian barna zebilela, bide bazterreko enbor baten gainean eseri zen. Horrela zegoela, paper zimur zaharkitu bat ikusi zuen ondoko beste enbortxo baten azpian. Hartu zuen paper puska, zabaldu zuen

eta... hura bihotzaren zimikoa! Euskaraz idatzita zegoen! ARGIA aldizkariaren orrialdea zen!

Urruti haietan bere herriko hizkuntza aurkitzeak zirrara handia eragin zion Plazido gazteari. Itxuraz, Santa kruz apaizak utzitakoa zen, handik igarotzen baitzen urte batzuk lehenago. Bilbotik bidaltzen zioten ARGIA. Liluratuta geratu zen Mujika, eta asmo sendo bat jaio omen zen bat-batean haren barruan. "Dei" bat bezalakoa izan zen: zerbait egin behar zuen bere hizkuntzaren alde. Herrira itzultzean, euskarak hain beharrezkoa zuen hiztegia egingo zuen.

Ez ditu edozein proiektuk 100 urte betetzen. Are gutxiago euskara hutsez funtzionatzen duen komunikabide independente batek. ARGIAK egin du ibilbidea zerukotik lurrekora… Andesetatik pasata.

Jose Luis Padrón
Idazlea

FACEGUK 03 AGENDA 06 **IGARTUBEITI BASERRIA** 8
EL PASADO EN PINCELADAS 18
UROLA GARAIKO KRONIKA 20 TOLOSALDEAKO KRONIKA 22
ERREPORTAJEA: **JOSE MARI GORROTXATEGI** 24 JAIAK: **GABIRIA** 34
JAIAK: **ZUMARRAGA** 38 JAIAK: **ORDIZIA** 52
EL ABOGADO RESPONDE 60 **GIDA KOMERTZIALA** 61 DENDAK 61
OSASUNA 64 FARMAZIAK 74 JATETXEAK 76 ETXEA 90

Maite duzun hor
Protegemos lo c

VG
Ventanas Goierri
babesten dugu
que más quieres
20 urte años
www.ventanasgoierri.com
943 72 53 15

UZTAILA
JULIO

UZTAILAK 1-19
Legazpi
UZTAILA KULTURALA
Ikus 14. orrialdea

UZTAILAK 1-31
Tolosa
UDA GIRO
Ikus 12. orrialdea

1 ASTELEHENA
Ataun
Santa Isabel Jaiak: Aian
Zumarraga
Santa Isabel Jaiak

2 ASTEARTEA
Ataun
Santa Isabel Jaiak: Aian
Zumarraga
Santa Isabel Jaia

3 ASTEAZKENA
Lazkao
Goierriko bertsolari gazteak: Maddi Aiestaran, Ane Beloki, Aratz Igartzabal, Endika Igartzabal, Gorka Maiz eta German Urteaga plazan, 22:00etan

UZTAILAK 5-13
Ataun
MITOALDIA

7 IGANDEA
Zumarraga
Musika eta Dantza Jaialdia
Zelai Arizti aretoa (Zumarraga, 13:00etan

11 OSTEGUNA
Lazkao
Sukarra 37 taldearen kontzertua, plazan, 22:00etan

12 OSTIRALA
Lazkao
Udako Zinema, plazan
Zumarraga
Geltokietako

13 LARUNBATA
Ataun
Ibilaldi Mitolojikoa
Zumarraga
Geltokietako Jaiak

MÓJATE POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE
El fin de semana del **6 y 7 de Julio** Zumarraga acogerá diferentes actos a favor de los afectados por la Esclerosis múltiple. Estos tendrán lugar el sábado 6 en la Plaza Kalebarren-Areizaga y el domingo 7 en el Polideportivo Municipal. El horario será de 11 a 14 h y estará abierto al púbico en general.

UZTAILAK 13-27
Ordizia
Ordiziako Jaiak
Ikus 52. Orrialdea

14 IGANDEA
Zumarraga
Geltokietako Jaiak
San Kristobal auzoko Jaia

17 ASTEAZKENA
Lazkao
RITA Antzerkia, Arerian, 22:00etan

18 OSTEGUNA
Legazpi-Gabiria
Aztiriko Santa Marina Jaiak

19 OSTIRALA
Ataun
Kaffka antzezlana Herri Antzokian 18:00etan.

LOTERIA • KINIELAK
PRIMITIBA ...
Aukera bat emaiozu zori onari!
Dale una oportunidad a la buena suerte!
Loteriak
Nagusia 3 • LEGAZPI
943 73 12 70

kuber

Rehabilitaciones y Obras

T. 943 73 35 73
kuber@kuber.es - **www.kuber.es**

Especialistas en:

Fachadas sistema SATE y ventilado,
Ascensores, Cubiertas y Terrazas.

Tramitamos gratis la solicitud de subvenciones.

Financiacion a un bajo interes.

EMPRESA AUTORIZADA PARA EL **DESAMIANTADO**

FACHADAS

SUBVENCIONES HASTA 30.000 €

ASCENSORES

INSTALACIÓN DE ASCENSORES

BAJADA DE ASCENSORES A COTA 0 Y ELIMINACIÓN DE PELDAÑOS

Legazpi-Gabiria
Aztiriko Santa Marina Jaiak

20 LARUNBATA

Ataun
Ataungo Organo Barrokoaren Nazioarteko XIII. jaialdia 18:00etan San Martingo elizan

Legazpi-Gabiria
Aztiriko Santa Marina Jaiak

21 IGANDEA

Legazpi-Gabiria
Aztiriko Santa Marina Jaiak

25 OSTEGUNA

Lazkao
Triki bertso poteoa: Eneko Araiztegi, Mikel Tapia, Iñaki Rezusta eta Jon Sagarnarekin, herrian zehar, 18:30etan

26 OSTIRALA

Legazpi
San Inazio Jaiak

27 LARUNBATA

Legazpi
San Inazio Jaiak

28 IGANDEA

Legazpi
San Inazio Jaiak

31 ASTEAZKENA

Legazpi
San Inazio Jaiak



IGARTUBEITI BASERRIA
(UZTAILA ETA ABUZUTA)

1.- IGARTUBEITI DANTZAN!
Ekainak 13tik irailaren 29 arte
ERAKUSKETA
DANTZA filmaren errodajea dela eta, Igartubeitiko baserri dolarea zinema toki bilakatu da. Zatoz deskubritzera!

2.- IGARTUBEITI FAMILIAN
Bisita gaitzazu familian eta deskubritu Igartubeiti baserriko sekretuak Martintxok proposatzen dituen jolasen bitartez!

3.- UDA IGARTUBEITIN!
Ekainak 18tik irailaren 27ra
Udan Igartubeitik eskaintzen dituen aukerak deskubri itzazu. Zure zain gaude!
Igartubeiti Baserrira bisita + Igartubeiti dantzan! tailerra
Asteartetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

4.- ZURE NEURRIRAKO ESPERIENTZIAK:
Bost zentzumenen bitartez, goza ezazu bisita berezietaz.
Aurrez izena ematea beharrezkoa da.
"Paisaiatik mahaira"
Bertako elikagaien dastaketa: Goierriko sagardoa, Euskal sagardoa eta Gorenak sagardoa, sagar zukua, Idiazabal gazta ketua eta ketu gabea, baserriko ogia, irasagarra, eztia, artisau gailetak.
"Baratzeko sekretuak"
Gidatutako ibilaldia.
Baserri mundua ezagutu ezazu bere inguruneko landareen, zuhaixken eta zuhaitzen bitartez. Guztiak betetzen dute bere funtzioa Igartubeitin, esperientzia honen bitartez, beraien sekretuak deskubri itzazu.
"Igartubeitira, XVI. mendeko baserri batera zentzumen bidaia"
Egun batez alkimista tipi bat bihurtu zaitez. Zure zentzumenak proban ipini itzazu. Zure eta senideen larrurako bereziak diren xaboi naturalak egin itzazu… Gainera XVI. mendeko baserri bateko bizimodua esperimentatu ahal izango duzu. Amaitzeko landa inguruneko zapore ezberdinak dastatzen amaituko duzu baserriko atarian.

ABUZTUA
AGOSTO

3 LARUNBATA

Lazkao
Puzgarriak, igerileku estaligabean.

4 IGANDEA

Ataun
Donostiako musika hamabostaldiaren baitan Andrés Cearen eskutik organo kontzertua San Martingo elizan 18:0etan.

Contabilidad
Xamar
Asesoría económica y fiscal
Enpresak eta Autonomoen Kontabilitatea eta Gestioa
Komunitateen Administrazioa
Higiezin Aholkularitza
Contabilidad y Gestión de Empresas y Autónomos
Comunidades de Vecinos
Inmobiliaria
Hirigoien 8A. LAZKAO Tel. 943 88 87 98 xamar@xamarasesoria.com
ekonomista
Kontxi Alonso Merchan
col. nº 16.704 elk. zk.
www.xamarasesoria.com

Aprovecha las ventajas de la

CONECTIVIDAD

en tus nuevos audífonos

MEJORA
la experiencia auditiva
en cualquier situación

También te ofrecemos más ventajas:

- Satisfacción garantizada.
- Opción de ampliación de garantía.
- Programa de visitas de seguimiento gratuitas durante el período de garantía.
- Programa especial de pilas durante 2 años.
- Posibilidad de financiación.
- Y muchas más.... Ven, te informamos sin compromiso.

Hasta 3 meses de prueba GRATIS

entzun
AUDIFONOAK

JON LEGARISTI
AUDIOPROTESISTA

www.entzunaudifonoak.com

LABEAGA 58, LOCAL I - Tlf 943 72 65 91 - URRETXU

7 ASTEAZKENA

Lazkao

Koldo Amestoy ipuin kontalaria, Maizpiden, 22etan

ABUZTUAK 13-18

Gabiria

GABIRIKO JAIAK

Ikus 34. Orrialdea

21 ASTEAZKENA

Lazkao

Harria eta maitasuna Iñaki Perurenenaren bakarrizketa, Maizpiden, 22etan

24 LARUNBATA

URRETXU

Musika Hamabostaldi Ibiltaria. Urretxun "Benta zaharreko mutiko alaien" musikaz oroituko da Iparragirre.

Iparragirre plaza, 10:00etan

29 OSTEGUNA

Lazkao

Bertso afaria: Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia, Maizpiden, 21etan

Olaberria

San Joan Txiki jaiak

© Josema Azpeitia

ARTZAIN EGUNA LEGAZPIN

Urtero bezala, Gipuzkoako Artzain Eguna ospatuko da Legazpin egitarau oparo batekin.

IRAILA
SEPTIEMBRE

1 IGANDEA

Legazpi

ARTZAIN EGUNA

MARTA LANDA
Centro Odontológico-Zentru Odontologikoa

10 urte jada zuekin.
Eskerrik asko denori!

10 años ya con vosotros.
¡Muchas gracias a todos!

Secundino Esnaola, 16b / Zumarraga **943 53 46 97**

www.martalanda.com

TOLOSA: Uztaila eta Abuztua

UZTAILAK 1-11

Bedaio auzoa GAZTE-AUZOLANDEGIA IZENEMATEA: EKAINAREN 13tik 30era bitartean, kultur etxean.

UZTAILAK 2-11

Amarotz auzoa 21. AMAROTZEKO ANTZERKI ASTEA
HAUR ETA HELDUENTZAKO SAIOAK

UZTAILAK 2

17:30: Amarotzeko Auzo-etxea
PAILAZTANA JUNIOR
"Kluedo Amarotzen eta sagutxo batzuk
22:00 Amarotzeko Auzo-etxea
ALAZNE ETXEBERRIA
Mujer blanca soltera busca

UZTAILAK 3

17:30 Kale ikuskizuna
OSTOMILA TXOTXONGILO TALDEA Osaba untxia eta osaba koioteren abenturak
22:00 Amarotzeko Auzo-etxea
TXALO-TALO BERROBI
Konplizeak

UZTAILAK 4

17:30 Kale ikuskizuna
MARTXANILAK Ardi latxa oihanean galdu zenekoa
19:30 Amarotz auzoa
PINTXOPOTEATRO
19:30 Euskal Herria plaza
DUO DE IMPROVISACION
KANCANEO TEATRO

UZTAILAK 4-7

Iurramendi auzoa
IURRAMENDI AUZOKO JAIAK

UZTAILAK 5

18:30 Kale ikuskizuna
PROFESOR KAROLI El hombre rueda

UZTAILAK 5-7

Amarotz auzoa
AMAROTZ AUZOKO JAIAK

UZTAILAK 7

Plaza Berria SAN FERMIN TXIKI HAURRENTZAKO JAIA

UZTAILAK 11

17:30 Amarotzeko Auzo-etxea
DORLETA KORTAZAR
Saharako ipuinak
22:00 Amarotzeko Auzo-etxea
RAFIAA AALI SALEM ETA LAGUNAK. Hitzaldia

UZTAILAK 12

22:30 Bonberenea
LISABÖ ETA DOBLE CAPA (MADRID)

UZTAILAK 12-13

Usabal kiroldegia
EHUNMILAK MENDI LASTERKETA

UZTAILAK 15

20:00 Bonberenea
ZIG-ZAGS (LOS ANGELES)

UZTAILAK 16-17

Hainbat gune EUSKARABENTURA Gazte euskaldunen espedizio ibiltaria

UZTAILAK 19

23:00 Lopez Mendizaba plaza
TOLOSAKO MUSIKA BANDA
DANTZARAKO PIEZAK

UZTAILAK 20

16:30 Berdura plaza
BIGARREN ESKUKO AZOKA

UZTAILAK 22

22:30 Berazubi auzoa. ZINEA AIRE LIBREAN: "CAMPEONES" GAU GIRO 2019

UZTAILAK 23

22:30 San Esteban auzoa
ZINEA AIRE LIBREAN: "CAMPEONES" GAU GIRO 2019

UZTAILAK 24

22:30 Amarotz auzoa ZINEA AIRE LIBREAN: "EL GRAN SHOWMAN" GAU GIRO 2019

UZTAILAK 27

12:00 M.Luisa Agirre doktoreak. TOLOSA KANTARI
KANTU JIRA HERRIKOIA

UZTAILAK 29

22:30 Larramendi auzoa
ZINEA AIRE LIBREAN: "CAMPEONES" GAU GIRO 2019

ABUZTUAK 8

20:00 Andre Maria parrokia
IGNACIO ARAKISTAIN/XABIEN URTASUN/MIKEL ANSOLA
ORGANO KONTZERTUA – DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

ABUZTUAK 31

12:00 M.Luisa Agirre doktoreak. TOLOSA KANTARI KANTU JIRA HERRIKOIA

Lisabö

Zugandik URBIL gaude

Banakakoentzat zein profesionalentzat, etxea berritzeko behar den guztia:

- Etxegintzako materiala
- Burdindegia
- Erramintak
- Zeramikak
- Komunak
- Sukaldeak
- Ateak
- Leihoak
- Horma paperak

BigMat URBIL

ERAIKUNTZARAKO MATERIAL ETA ZERBITZUAK

Hiribarren 34, LAZKAO **943 00 88 87**
E-mail: urbil@bigmat.es
www.urbil.bigmat.es

LEGAZPI: Uztaila kulturala

1 ASTELEHENA

HAURRENTZAKO JOLASAK Sorgintxulorekin
18:00, Euskal Herria Plaza

3 ASTEAZKENA

KALE IKUSKIZUNA: "Al Bake´s Saloon". 17:30-20:30, Lau Bide Taberna

4 OSTEGUNA

KALE IKUSKIZUNA: "Esku harriak-Oteizaren (h)aria. 19:00, Kale Nagusia

5 OSTIRALA

MUSIKA: "Mielotxin". Goiz Deia Txistulari Taldeak sustaturik. 19:30, Gernika Plazan

IKUSENTZUNEZKOA II: "Legazpi Jaietan" Ikatza Argazkilari Elkartea. 22:30, Azoka

8 ASTELEHENA

JOLAS PARKEA ETA TAILERRAK. 17:00-20:00, Lau Bide kalean.

APAR FESTA: 20:00, Lau Bide Kalea.

9 ASTEARTEA

PARKOUR ETA PARKOUR CROSS. Akrobazietan oinarritutako kirola.

CHASE TAG. Tailerrak eta erakusketa.
17:30-20:30 Euskal Herria Plaza.

11 OSTEGUNA

KALE IKUSKIZUNA: "Aukerak" The Funest Troup. Euskal Herria Plaza, 19:00etan

12 OSTIRALA

IKUSENTZUNEZKOA III: "Natura". Ikatza Argazkilari Elkartea. 22:30, Azoka.

15 ASTELEHENA

HAUR ETA GAZTENTXOENTZAKO JOLAS PARKEA. 17:00-20:00, Azokan.

APAR FESTA. 20:00, Azokan

16 ASTEARTEA

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK. 19:00, Erdialdean.

17 ASTEAZKENA

KALE IKUSKIZUNA: "Kale Gorrian" Barsanti Teatroa. 19:00, Kale Nagusia.

18 OSTEGUNA

MUSIKA: Agurtzane eta Ion Elustondo lagunekin "Bizirik dauden eskuak" diskaren aurkezpen kontzertua. 19:00, Agirre Etxeberri Parkea.

19 OSTIRALA

IKUSENTZUNEZKOA IV: "Bidaiak". Ikatza Argazkilari Elkartea. 22:30, Azoka

ORAIN, ZURE ZERBITZURA, BEASAINen!!

Beasain eta Lazkao arteko errepidean, SENPERE Merkatal Gunearen parean.

lorekolore
LUR ZERBITZUAK

- ERREGADIOA
- GARAIKO LOREAK
- OSPAKIZUNAK
- JARDINERITZA LANAK...
- LORONTZIAK
- EZKONTZAK
- HAZIAK
- HILETAK

- REGADÍO
- FLORES DE TEMPORADA
- CELEBRACIONES
- TRABAJOS DE JARDINERÍA
- TIESTOS
- BODAS
- SEMILLAS
- FUNERALES

Senpere, 12. BEASAIN 943 88 30 53

GOIERRI

zerbitzuak eta alojamenduak

JATETXEAK

ARAMA
Toki Alai 943 88 89 53

ATAUN
Lizarrusti 943 58 20 69

BEASAIN
Artzai Enea 943 16 31 16
Dolarea 943 88 98 88
Guregas 943 80 54 80
Kattalin 943 88 92 52
Kikara 943 88 62 34
Mandubiko Benta 943 88 26 73
Salbatore 943 88 83 07
Urkiola 943 08 61 31
Xerbera 943 88 88 29

GABIRIA
Korta 943 88 71 86

GAINTZA
Oteñe 943 88 98 48

IDIAZABAL
Alai 943 18 76 55
Pilarrenea 943 18 78 66

LEGORRETA
Bartzelona 943 80 62 06

MUTILOA
Mujika 943 80 16 99
Ostatu 943 80 11 66

OLABERRIA
Castillo 943 88 19 58
Zezillonea 943 88 58 29

ORDIZIA
Martinez 943 88 06 41
Txindoki 943 88 40 49

ORMAIZTEGI
Kuko 943 88 28 93

SEGURA
Imaz 943 80 10 25

ZALDIBIA
Lazkao Etxe 943 88 00 44
Kixkurgune 943 50 10 86

ZEGAMA
Ostatu 943 80 10 51
Otzaurteko Benta 943 80 12 93

ZERAIN
Ostatu 943 80 17 99

SAGARDOTEGIAK

ALTZAGA
Olagi 943 88 77 26

ATAUN
Urbitarte 943 18 01 19

LEGORRETA
Aulia 943 80 60 66

OLABERRIA
Etxezuri 943 88 20 49

ORDIZIA
Tximista 943 88 11 28

ZERAIN
Olharte 686 29 91 58
Otatza 943 80 17 57

HOTELAK

BEASAIN
Dolarea**** 943 88 98 88
Guregas** 943 80 54 80
Igartza* 943 08 52 40
Salbatore* 943 88 83 07

IDIAZABAL
Alai* 943 18 76 55

OLABERRIA
Castillo*** 943 88 19 58
Zezillonea** 943 88 58 29

SEGURA
Imaz** 943 80 10 25

PENTSIOAK

MUTILOA
Mutiloa* 943 80 11 66

ORMAIZTEGI
Itxune** 639 23 88 89
Petit Goierri** ... 657 79 90 68

ZEGAMA
Zegama** 943 80 10 51

NEKAZAL-TURISMOAK

ALTZAGA
Olagi 943 88 77 26

ATAUN
Aldarreta 943 18 03 66

LAZKAO
Lizargarate 943 88 19 74

OLABERRIA
Borda 943 16 06 81

SEGURA
Ondarre 943 80 16 64

ZALDIBIA
Irizar Azpikoa ... 943 88 77 18
Lazkao Etxe 943 88 00 44

ZEGAMA
Arrieta Haundi ... 943 80 18 90

ZERAIN
Olharte 680 17 12 91
Tellerine 943 58 20 31

LANDETXEAK

LEGORRETA
Bartzelona 943 80 62 06

MUTILOA
Liernigarakoa ... 943 80 16 69

ZEGAMA
Otzaurteko Benta . 943 80 12 93

ATERPETXEAK

ATAUN
Lizarrusti 943 58 20 69

SEGURA
Segura 943 41 51 12

ZERAIN
Zerain 943 80 15 05

APARTAMENTU TURISTIKOAK

GABIRIA
Beko Errota 639 23 88 89

KOMERTZIOA

BEASAIN
Unanue Gozotegia
..... 943 16 22 66

ORDIZIA
Ordizian Elkartea
..... www.ordizian.com
Unanue Gozotegia
..... 943 88 15 51

ZERBITZU TURISTIKOAK

ALDABE (ZERAIN)
Gida zerbitzuak 943 80 15 05

ERRO (ORDIZIA)
Gida zerbitzuak 943 88 22 90

IBUR (ITSASO)
Hipika 663 06 00 11

Logo honekin markaturiko enpresek kalitate turistikorako konpromezuaren ziurtagiria dute.

www.goierriturismo.com

goierri Basque Country

European Destinations of Excellence Winner

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EXPLORE SANSEBASTIAN REGION

Goitur – GOIERRIKO TURISMO AGENTZIA –

Gastronomia

IDIAZABAL LURRALDEA - TERRITORIO IDIAZABAL

- »**Asteazkenetan Ordiziako azokara.** *Los miércoles al mercado de Ordizia.*
- »**Gaztandegietara bisitak.** *Visitas a queserías.*
- »**Txakolia, sagardoa eta Idiazabal gaztaren arteko maridajeak.** *Maridajes entre txakoli, sidra y queso Idiazabal.*
- »**Goizane agrodenda (Zaldibia), ekoizleak eta delicatessen dendak.** *Agroaldea Goizane (Zaldibia), productores y tiendas delicatessen.*

Natura

GOIERRI- BASQUE HIGHLANDS

- **Aizkorri-Aratz Parke Naturala.** *Parque Natural Aizkorri-Aratz.*
- **Zegamako orientazio zirkuitoak.** *Circuitos de orientación de Zegama.*
- **Aralar Parke Naturala eta mitologia.** *Mitología en el Parque Natural de Aralar.*
- **Lizarrusti (Ataun) Abentura Parkea.** *Parque de aventura de Lizarrusti (Ataun).*
- **Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdea.** *Vía Verde Mutiloa-Ormaiztegi.*
  Orientazio jolasa. *Juego de orientación.*
- **Santiago Bidea: San Adriango tunela.** *Camino de Santiago: túnel de San Adrián.*
- **GR-283: Idiazabal gaztaren ibilbidea.** *GR-283: ruta del queso Idiazabal*
- **Euskal Herriko Trail Estazioa.** *Estación de Trail del País Vasco.*

GOIERRIKO TURISMO BULEGO ETA INTERPRETAZIO ZENTROAK

- **ATAUN.** Aralar Parke Naturaleko IZ . *Centro de interpretación del Parque Natural de Aralar.* Tel.: 943 58 20 69. www. ataunturismoa.net • www.lizarustiabentura.eus • www.parketxesarea.org/lizarrusti
- **ATAUN.** Barandiaran Museoa. *Museo Barandiaran.* 943 18 03 35. www.ataunturismoa.net • www.parketxesarea.org/barandiaran
- **BEASAIN.** Igartzako Monumentu Multzoa. *Conjunto Monumental de Igartza.* 943 08 77 98 / 605 77 18 81. www.igartza.net
- **IDIAZABAL.** Gaztaren Interpretazio Zentroa. *Centro de Interpretación del Queso.* 943 18 82 03 www.idiazabalturismo.com
- **ORDIZIA.** Goierriko eta Gastronomiaren Interpretazio Zentroa, d'Elikatuz. *Centro de Interpretación del Goierri y de la Alimentación y Gastronomía, d'Elikatuz.* 943 88 22 90. www.delikatuz.com
- **ORMAIZTEGI.** Zumalakarregi Museoa. *Museo Zumalakarregi.* 943 88 99 00. www.zumalakarregimuseoa.eus
- **SEGURA.** Erdi Aroko Interpretazio Zentroa. *Centro de Interpretación medieval.* 943 80 17 49. www.ezagutu.segura.eus
- **ZEGAMA.** Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa. *Centro de Interpretación Parque Natural Aizkorri-Aratz.* 943 80 21 87. www.parketxesarea.org/anduetza • www.zegamaturismoa.net
- **ZERAIN.** Paisaia Kulturala eta Burdinaren mendia. *Paisaje Cultural y Montaña del Hierro.* 943 80 15 05. www.zerain.eus

943 16 18 23

JOSÉ ÁNGEL IGARZABAL
Escritor

En julio de 1969 se inaugura la primera fase del embalse de Barrendiola que acaba con las restricciones comarcales

El pasado en pinceladas

De reinas, coros y reyes de la selva

En plena estación estival traemos noticias que, en su día resaltaron en el discurrir de nuestros pueblos

JULIO

Nos remontamos a 1969. Hace cincuenta años se da un decisivo paso en la solución del problema de la escasez en el abastecimiento público de agua a la comarca de Urola Garaia. El subsecretario del Ministerio de Obras Públicas inaugura la primera fase del embalse de **Barrendiola**.--- En el marco literario triunfa una joven beasaindarra: **Montserrat Hernando** es galardonada con el primer premio del certamen convocado por la Obra Sindical de Educación y Descanso de Gipuzkoa bajo el tema "El libro en el mundo del trabajo".--- El "glamour" brilla en el **Beotibar de Tolosa** con motivo de la proclamación de "Miss Vascongadas". En el transcurso de un festival se alza con el título la donostiarra **Mari Carmen Arrospide**. Se presentaron como aspirantes al título nueve candidatas . Entre ellas una goierritarra, **Yolanda Perez** de Idiazabal.--- A últimos de mes la crónica necrológica recoge el fallecimiento en Zumarraga de **Martin Cenecorta "Tximista"**, subdirector de la banda de música de la localidad. --- El barrio legazpiarra de San Ignacio celebra sus patronales fiestas. El preámbulo lo pone una verbena en la que es proclamada reina de la fiestas **Maria Asunción Beitia**.--- Por último registramos un apunte referido al mercado ordiziarra correspondiente a julio de 1969. En el primer miércoles del mes, destaca la abundancia de hongos cotizándose a 90 pts. el kilo, así como el alto precio de la anchoa (60 pesetas el kilo). El siguiente mercado anota la venta de algo mas de 4.000 kilos de queso (120-125 pesetas el kilo). Están presentes las primeras vainas del país (30 pesetas el kilo) y los primeros melones y sandías procedentes de Andalucía (8-10 pesetas el kilo). Se cierra el mes con la subida del precio del huevo del país (35 pesetas la docena) y el alza del precio del conejo (50-52 pesetas el kilo).

AGOSTO

Cincuenta años atrás en Zumarraga se graban imágenes de festejos populares, tales como pruebas de sokatira, aizkolaris o de carneros. La filmación corresponde a "Urtain, el rey de la selva...o así", película que se rueda bajo la dirección y guión de Manuel Summers con música de Carmelo Bernaola, destacando en el reparto **Jose Manuel Ibar "Urtain"** como protagonista y Pepa Flores.--- En este agosto del 69, Tolosa vibra al compás del Certámen de la Canción Vasca de Masas Corales que en su primera edición tiene como marco el **teatro Leidor**. Participan quince agrupaciones procedentes de Bizkaia, Navarra, Alava y Gipuzkoa. Como colofón, de manera conjunta se interpreta "Txorinua" del tolosarra Eduardo Mocoroa.--- El bertsolarismo tiene una atrayente cita en Itsasondo. Diez bertsolaris participan en el I Premio Andra Mari de Bertsolaris Noveles.. El mendarotarra Juan Loyola se hace con el título de campeón. El segundo y tercer puesto corresponde, respectivamente a **Javier Zeberio** de **Itsasondo** y **Juan Mari Etxaluze** de **Zerain**.--- La crónica de sucesos registra el incendio del caserío Bastarretxe emplazado en el gabiritarra barrio de **Aztiria**. El fuego destruye totalmente el edificio ocupado por el matrimonio **Felipe Goenaga-Gregori Ormazabal**, sus siete hijos y el padre de él afectado de ceguera. Cáritas de Legazpi abre una suscripción destinada a recaudar donativos y a solidaridad se hace patente desde el primer momento.--- Con algunos aspectos significativos del mercado de Ordizia referentes a agosto de 1969 completamos este mosaico de noticias del pasado. A mediados de mesel precio del conejo baja de 50 a 42 pesetas el kilo. En los dos últimos mercados, la ziza amarilla alcanza las 100 pesetas el kilo, mientras la alubia negra del país se oferta entre 130-140 pesetas el celemín y el hongo a 90-100 pesetas el kilo. La caza se hace presente con las primeras tórtolas y codornices cuyo precio oscila entre 20-25 pesetas la pieza-.

Disfruten del verano y de las vacaciones.



No cabe duda de que al pobre Urtain le tocó hacer de todo...

mota guztietako
desataskoak

desatascos en fregaderas,
duchas-inodoros-desagües generales en comunidades...

Mediante nuestros equipos de última tecnología le ahorraremos dinero y tiempo con una detección rápida y precisa.

Gracias a la camara TV trazadora y a la cámara termográfica localizamos con seguridad y precisión atascos y fugas para actuar únicamente en el sitio exacto.

TB kamara bidezko trazadorarekin eta kamara termografikoarekin ur-ihesak zehaztasun osoz aurkitzen ditugu.

desatascos
en general

detector de fugas
mediante camara TV y trazadora

671 618 999 • 671 618 880
Bakea kalea, 6 ALTSASU
info@zitek.es • www.zitek.es

ASIER ZALDUA
Kazetaria

A ze urtea... Urrian Kilometroak, maiatzean hauteskundeak eta erdian, propina: Euskal Herriko Itzulia. A ze gerra eman zuen... Ez dakit nola ez nuen txirrindularitza zaletasuna galdu.

Urola Garaiko Kronika

Mikel, ezetz Joko Olinpikoak Zumarragara ekarri?

Aurtengo Euskal Herriko Itzulia Zumarragan hasi da. "Zertara dator orain hori? Aspaldi izan zen! la hiru hilabete pasa dira dagoeneko! Hori jada ez da notizia, ahaztua dago!", pentsatuko duzue. Ahaztua? Baita zera ere! Zuek ahaztuko zenuten! Nik ez dut sekula ahaztuko. **Mikel Serrano**k Joko Olinpikoak ekarri izan balitu, ez nuen izan nuena baino lan gehiago izango. Amesgaiztoak ditut oraindik. **Alex Aranburu, Izagirre anaiak eta Gari Bravo** atzetik ditut, su batean, ni harrapatu nahian. Eta beraien atzetik **Xabier Muriel** Euskadi Basque Team-Murias taldeko zuzendaria, burua leihotik aterata, builaka: "eman gogor! Ez etsi kazetari zikin hori harrapatu arte!".

A ze urtea... Urrian Kilometroak, maiatzean hauteskundeak eta erdian, propina: Euskal Herriko Itzulia. A ze gerra eman zuen... Ez dakit nola ez nuen txirrindularitza zaletasuna galdu. Zumarragan prentsaurrekoak antolatu zaleak dira eta ordubeteko hiru prentsaurreko egon ziren Itzuliaren inguruan: ibilbidearen aurkezpena, aurkezpen nagusia eta trafikoan eragingo zituen buruhausteen aurkezpena.

Gainera, halako ekitaldi bereziak heltzen direnean, nagusiak berotu egiten dira: "Jarraipena egin behar zaio! Egunero atera behar dugu zerbait! Erreportajeak, elkarrizketak, argazki ikusgarriak...". Dena nahi dute. Ase ezinak dira.

Goierriko Hitzarako Itzulian parte hartu zuten Goierriko txirrindulari guztien iritziekin orrialde bat bete behar nuen. Eta eskualde alu honetan badmintonak ez ditu jarraitzaile asko, baina txirrindularitzak...

Euskal Herriko Itzulian Goierriko lau txirrindularik parte hartu zuten. Aipatutako Aranburuk, Izagirre anaiek eta Gari Bravok. Hori gutxi balitz, gure eskualde honek, trenez, autobusez, txirrindulariez eta mendiko korrikalariez gain, zuzendariak ere ekoizten ditu: Xabier Muriel zaldibiarra, adibidez. Bostekin hitz egin behar izan nuen. A ze whatsapp eta dei zaparrada, guztiek nire galderak erantzutea lortu arte.

Hori, Goierriko Hitzarako. Noticias de Gipuzkoa egunkarian ere lan egiten dut. Eta horiek ere zerbait nahi zuten ba... Itzulia hasi aurretik etapa bakoitzari buruzko erreportaje bana egin behar genuela eta ea Zumarragakoari zegokiona egingo al nuen. Bai, motel. Nola ez.

Ba al dakizue zenbat dei egin eta jaso nituen bi erreportaje horiek egiteko? 22. Whatsappei dagokionez, zenbatezinak dira. Infinitu gehi bat, gutxi gorabehera.

Eta ba al dakizue zer den harrigarriena? Merezi izan zuela. Elkarrizketak telefonoz egin nituen, baina halako lan bat ezin da artxiboko argazkiekin jantzi eta txirrindulariekin gelditu nintzen argazkiak ateratzeko. Noticias de Gipuzkoako erreportajerako Gari Bravorekin eta Goierriko Hitzako erreportajerako Alex Aranbururekin.

Plazera da beraiekin lan egitea. Garirekin Voltan erorikoa izan eta egun gutxira gelditu nintzen. Zita bertan behera gelditu zitekeela uste nuen, baina zintzo-zintzo azaldu zen eta erlojupekoak egiteko erabiltzen duen bizikleta ekarri zuen, gainera, argazkia aberasteko. Antioko aldapa beldurgarrian, ermita aurrean, tabernan... atera nizkion argazkiak. Beti irribarretsu, ez zuen pazientzia galdu.

Alexekin ere Antion gelditu nintzen. Han nengoela, bere mezu bat jaso nuen: "Ezkioko errotondan kartela jarri dute eta zer iruditzen zaizu bertan gelditzen bagara?". Noski, inongo arazorik gabe. Argazkia ateratzea da kontua. Ideia bikaina, Alex! "Ale, ale, ale... Alex!" zion kartela jarri zuten Ezkioko hiru jubilatu jatorrak ezagutzeko aukera eman zenidan: **Josetxo Mendizabal, Ramon Garmendia eta Kandido Arizti**. Zorionekoa zu, Alex. Horrelako jarraitzaile fin eta jatorrekin, garaipen asko lortuko dituzu.

Hoixe ba, Mikel. Hurrengoan, Joko Olinpikoak ekarri Zumarragara. Aurtengo Itzulitik bizirik atera banaiz, Joko Olinpikoen jarraipena egiteko prest nago. 2020, 2024 eta 2028koak jada hartuak daude, baina 2032koak eskatzeko garaiz zaude. Ziur oraindik alkate jarraituko duzula, gainera. Ana Botellak ez zuen lortu, baina zuk lortu dezakezu. Animo! *A relaxing cup of café con leche in Euskadi enparantza!*

Irizar
Mundu hobea eraikitzen
laguntzen dugu
www.irizar.com

MARTA SAN SEBASTIAN
Kazetaria

Tolosaldeako Kronika

Tolosako udako klasikoak

Hondartza eta itsasotik urrun egon arren, Tolosako udak ere baditu bere plan kuttunak

Uda giroko kronika idazteko ahalegin honetan lehenengo harriarekin topo egin dut. Baina, Tolosako udak izango al du lau mila karakterreko artikulua idazteko adina mami? Hondartzarik ez dugu, Aste Nagusirik ere ez, turistak ez dira milaka etortzen eta bertakook ere hanka egin ohi dugu aukera suertatzen denean. Pentsatzen jarriz gero, ordea, Tolosako udak ere baditu klasikoak, urtean joan eta urteak etorri bere horretan jarraitzen duten betiko ohitura edo planak. Ondorengo lerroetan zerrendatuko ditugu zortzi hit-ak.

1. Orioko hondartza eta Ondarretakoa kuttunak dira tolosarrentzat, baina merezi al du autoa nonbait aparkatu ahal izateko botatako izerdiak? eta bi ordu eskaseko hondartza saioa egitearen truke ordaindu beharreko dirutza uzten duen gorputzaldiak? Ez al da aukera hobea Usabalgo igerilekua? Bertatik bertara, aparkatzeko lekua soberan, ezagunekin kontu kontari aritzeko parada eta ondoren dutxa eder bat hartzeko aukera. Kontxa edo Usabal? ez dago parekorik!

2. Itsasoa edo kostaldea gustuko ez dutenek, ordea, mendira jotzen dute. Zer klasikoagorik udako mendi-buelta baino? eta klasikoen artean klasikoena da Tolosan Uzturrera igotzea, neguan edo udan. Bueltan, hori bai, ezin da geldialdia barkatu. Izaskungo jatetxeko kroketak beti daude zain. Neguan salda eta udan sagardoa izaten dute lagun, eta ea lortzen duzun jatetxeko terrazan mahaia hartzea.

3. Eta ezin ahaztu zerrenda honetan gastronomia. Tolosaz ari gara! Ez da uda babarruna jateko sasoi egokiena beharbada, baina bestelakorik ere badugu. Izozkia da udako produktu izarra, eta Donostian edo Zarautzen egiten diren jende-ilararik izaten ez bada ere, Eceiza gozo-dendako erakusmahai parean txanda eskatzen dute izozki zaleek. San Frantzisko pasealekuko banku bateko lasaitasunean dastatzea baina hobeagorik ez dago.

4. Herria hutsa geratzen dela esango didanik ere izango da, noski. Oporretara edo kostaldera, baina denak egiten dute, dugu, ihes. Ados. Abuztuan izurritetik ihesi joan direnaren irudipena ematen du herriak, baina desertu horretan bada salbuespen bat, herriaren taupadek tinko jarraitzen duten oasi txiki bat: Euskal Herria plaza. Salbuespeneko txoko honetan bizitzak aurrera darrai. Gehiago edo gutxiago, baina terrazak lepo izaten dira, garagardo freskoa eta kafea izotzarekin, zertarako gehiago!

5. Eta abesti famatuak zioen bezala, Festarik festa hor nabil ni egunero... Ba horixe, ez direla festazale bakarrak Joxelu Anaiak. Asko dira udan herriko jaien ibilbidea egiten dutenak, bakar bat ere galdu gabe. Tolosako Sanjoanetatik hasi eta Alegiako Karmenak, Villabonako Santioak... eta konturatzerako Ibarrako Sanbartolomeak.

6. Eta kultura urte osoan jaun eta jabe den herrian, erakusten du bere ahalmena udan ere. Ez du Donostiako Jazzaldiak duen oihartzunik izango, baina Tolosak ere badu bere udako musika jaialdia, Tolosanblues, aurten hamabosgarrenez ospatu dena Sanjoanen ondoren.

7. Eta udan etxean geratzea baino beste erremediorik geratzen ez bazaizu, izan zaitez turista herrian bertan! Ezagutzen al duzu Andre Mari parrokiaren barrualdea eta bere hormek ezkutatzen duten historia? Brian Cullen turismo bulegoko gidariak atsegin handiz erakutsiko dizkizu bere sekretuak.

8. Eta iritsi da konturatzerako, udaren amaiera. Azken urteotan, zortez, honek ere badu Tolosan festarako aitzakia. Badira urte batzuk udako azken festa izenarekin hondartzako boley txapelketa martxan jarri zela, eta urtez urte arrakasta handiagoa du. Bai, Tolosan arraun egiten da eta hondartzako boley-ak zale mordoa du. Hondartzarik eta itsasorik ez izateko, nahiko ondo moldatzen dugu uda, ezta?

Pergolas
para terrazas y cafeterías

TOLDOS OLANAK AGUSTIN S.L.

Pol. Zubi-Erreka, 42 - LAZKAO - Tf: 943 88 65 58
Móvil: 665 71 95 41 - toldosagustin@toldosagustin.com
www.toldosagustin.com

síguenos en facebook

GURE EGUNEROKO OGIA
EL PAN NUESTRO DE CADA DÍA

ENDAIA
Notre Pain

BASERRIKOAK Caseros
ZEREALDUNAK Cereales
OPILAK Bollos
BIOLOGIKOAK Biológicos
BAGETAK Baguettes
TXAPATAK Chapatas

Aukera ezazu gustokoen duzun ogia eta erreserba ezazu zure dendan.
50 ogi motatik gora duzu aukeran.
Elige el pan que más te guste y resérvalo en tu tienda.
Tienes más de 50 variedades a elegir.

José Mari Gorrotxategi Pikasarri, gozogilea, agur

José Mari Gorrotxategi Pikasarrik utzi gaitu, gozogile ospetsua, euskal kulturaren galera nabarmena.

Juan Manuel Garmendia
FECOGAko Lehendakaria eta Euskal Gastronomia Akademiako Idazkaria

Jose Mari Gorrotxategiren bizitzan atzerabegirada egingo bagenu, ibilbide oparo bat ikusiko genuke. Zalantzarik gabe arras bizia, bere bizitzako alderdi guztiak sutsuki bizi izan ditue, oparotasunean.
Ezagutzeko aukera osoa izan dugunok; berarekin bizipenak, bazkariak, afariak, bilerak... partekatu ditugunok, ondo aski dakizkigu aukera guztiak, bizitzako gertaera guztiak gozamenerako aukera modura ikusi dituela, hazkuntzarako edo garapenerako aukera moduan bezala bestela. Ez da inoiz lekuko soil izan, bere papera beti oso militantea eta eraginkorra izan delarik.

Berak zioen lez, 1929. urteko kinto ugarietatik bakan batzuk bakarrik hasi zituzten batxilergo ikasketak, beste guztiak praktika-ikasle gisa hasi sartu ziren hainbait denda eta tailerretan. Gure Jose Marik familiako dendan, gozodendan, lanean hasteko aukera izan zuen.

Gozogileak zahartzarora iristean beraien negozioa eskualdatzeko ohitura zuten. Bere aitonak, Matias Gorrotxategik, Anacleto Berroetaren eskutik jaso zuen gozodenda 1925. urtean. Eskualdatze kontratuan establezimendua, gozodenda, txokolategi, kandela eta jangai denda bezala azaltzen da deskribatua.

Gozogileak beraien lanbidea zintzoa herri eta hirietako erdialdean kokatutako tailerretan garatu izan dute. Horregatik beraien lanlekua XVII. Mendez geroztik kale Nagusiko 2.enean, parrokiaren, Udaletxearen eta plazaren alboan, egon da, herriko jaialdi guztiak ospatzen diren lekua..

Plaza Zaharrean, zaldi gurdiek geldialdia izaten zuten zaldien aldaketa egiteko, urtetan Kale Nagusia Madrid eta Paris lotzen zituen ibilbide Nazionalaren zati bat zen.

1929. urteko erramu-igandean jaio zen Jose Mari Gorrotxategi Pikasarri, lau anai-arreben artean nagusia; hamalau urterekin bukatu zituen ikasketak Eskolapioetan, bere aitaren, Jose Mari Gorrotxategi Otaegiren tailerrean lana egiten hasi zelarik. Bere aita negoziaren arduraduna zen bigarren belanauldia gisa.

Bere prestakuntza Donostia, Iruña eta Biarritzen hobetu zuen. Cugat del Vallés-eko eskolako ikasle sortzailetako izan zen.

Familiako negozioaren ardura hartzean kalitatean eta ospean sona handia lortzera eraman zuen. Zalantzarik gabe, euskal gozogintzan erreferentea. Produktu berritzaileen sormena azpinmarratuko genuke, Xaxuak adibide (izena gozodendan lan egin zuen langile bati hartua,, Tolosako San Blas ermitaren ondoan dagoen Sasueta baserrian jaioa), hainbat turroi, teilak, kanutiloak, txokolateak,...

Jose Mari Gorrotxategi Pikasarrik arreta berezia izan du gozoak lantzen zituenak gozogile maila berreskuratzeko . Antzina pastelgileak okinen eta gozogilen tartean kokatutako pastelak egiten zituzten gremioa osatzen zuten. Normalea pastelak haragizkoak ziren eta horregati da ulergarria atsotitzek ziotena, alferkerian pasatzen zituztela ostiralak, bijilia eguna izanik haragirik ezin baitzen jan.

Lehen esan dugun bezala establezimendua argizarintzarekin lotua zegoen. Argizaritza eta gozogintzaren lotura lehengaietan datza: argizaria eta eztia. Bata argia emateko eta bigarrena gozatzeko. Historian zehar, argi-

zaritzak garrantzia handia izan du Euskal Herrian; aspaldiko siniskeriak zionez argia beharrezkoa zen ondorengo bizitzarako bidea argitzeko. Argi indarra zabaldu zenean negozioak bide berriak bilatu behar izan zituen. Txokolate ekoizpena zen beste ohiko iharduera bat establezimendu honetan, sarritan sendagai gisa erabilia izan zelarik. Mendetan zehar txokolatearen kontsumoa hedatu da, nahiz luxuzko produktutzat hartu. Elikagai denda bezala ere bere garrantzia zuen. Inguruko baserritarrak hurbiltzen ziren esnea saltzera, Izaskun, Amaroz eta Usabal auzoetatik batez ere. Sarritan produktuen salerosketa truke bidez egiten ziren.

Bere lanbidearekin batera, berehala hasi zen gozogintzarekin lotutako tresna eta osagaiak biltzen. Bide honek gozogintzari buruzko Museo ikusgarri bat sortzea eragin zuen, urtetan biltzen, sailkatzen, ikertzen ibili ondoren. Bisitariak zuzenean ezagutu dezake Gipuzkoako historian hain garrantzikoa izan den lanbide honen nondik norakoak. Adibidez kandelak, turroiak, konfiturak, grageak, likoreak, bizkotxoak, kafea xigortzea, errotak eta txokolategia.

Jose Miguel Barandiaranek, Gasteizko apaiztegian bere aitaren rakasle izandakoak bisitatu zuen bere museoan eta aurrera jarraitzeko animatu zuen. Ahalegina, ekarpenak ordaintzen egin zuen beti, osagai edo tresna berriak lortzeko modu bakarra zela uste zuen. Berak esaten zuen bezala, aurreneko opari gisa onartzen badezu, ez dira gehiagotan itzultzen.

Jose Marik maitasun berezia zien ere Jorge Oteiza eta Mikel Laboari.

Gozogintzak izandako garrantzia azaltzeko Caracasko Gipuzkoar Erret Konpainiak 1730. urtetik aurrera Benezuela-

aseplan
AHOLKULARITZA ASESORÍA
aseplan.com
desde 19/98
JOSE MIGUEL ITURRIOTZ, 2/G - BEASAIN
T 943 086 420
asesoría de empresa
AHOLKULARITZA
servicios jurídicos
ABOKATUAK
DULCE Mª LOINAZ, 3 - BEASAIN
T 943 887 129
administración de fincas
KOMUNITATEAK

Lacunza

INGELESA ETA FRANTSESA
4 URTETIK AURRERA

Udako ikastaro **trinkoak**

01 INGELESEZ EDO FRANTSESEZ

02 GOIZEAN 2 ORDU

03 MAILA ETA ADIN GUZTIAK

2019/20 Ikastaroa

%85 GAINDITU AZTERKETA GUZTIETAN

IRAKASLE TREBATUAK

BANAKAKO JARRAIPENA

San Inazio Kalea, 17, Beasain
Donostia, Errenteria, Irun eta Zarautz

www.lacunza.es
943 46 47 00

tik kakao inportatu zuela azaltzea nahikoa da. Europa mailan herrialde honetan norbanako kontsumoa handienetakoa zen. Merkataritza honen ondorio batzuk Santa Maria basilika eta Donostiako portuaren berrikuntza lanak izan ziren.

José Mari Gorrotxategi Pikasarri 1957. urtean Mirentxu Perales Maizarekin ezkontzen da, 6 seme alaba dituzte, 5 bizi dira: José Mari (1958an jaioa), Rafael (1959), Arantza (1962), Maite (1962) aurrekoaren bikia eta 17 urtekin zendua, Iñaki (1964) eta Blanca (1967).

Jose Mari Gorrotxategi Pikasarrik beti ulertu du denda biren harteko lantzat; senarra lanean, ekoizten eta emaztea saltzen,, negozioko administrari eta gustoa ekarriz. Horregatik, bizimodu gogorra ezagutzeagatik, ez zuen bere semeek lanbide bera izatea eta ikasketak erraztu zizkien.

Publizitate eta enpresan ikasketak hasiak zeuzkaten Rafaelek eta Iñakik gozogile izan nahi zutela esan zioten Jose Mariri. Sentzazio bikoitza izan zuen: alde batetik pena, lehenago jakin izan balu Suizako Txokolate eta Gozogintza unibertsitatera bidali izango zituelako eta formakutza akademikoa izango zutelako, baina bestalde oso alai sentitu zen, benetako bokazioa zela baieztatu zuenean. Lan asko egin dute, baina lan horri esker jakinduria itzela lortu dute eta Gipuzkoako gozogintzan mailaa bat dute, bere aitak arrotasunez esaten zuen bezala.

"Euskal gozogintza ren historia" laneanegindako lana azpinmarratzekoa da, bi liburuta gertakari eta informazio bitxi asko azaltzen dira bertan. Liburua Jose Miguel Barandiaranen proposamena jarraituz idatzi zuen, gozogintzaz zuen ezagutza kontutan izanik. Gozogintza eta Txokolatearen historia ikertu zuen, hitzaldi asko eskainiz, irratiz zein telebistaz kazetari. Sari ugari lortu ditu Euskal Gastronomiazko Kofradiatik:"Busca Isusi saria", "Felix Mokoroa diploma" eta "Eguzkilore saria".

Bizitzarako ezinbesteko diren familia eta lanaz gain, Jose Mari Gorrotxategik beste gauza asko garatu ditu. Horietako asko gizartearen zerbitzura, adibidez Tolosako dendariek bera zinegotzi izateko proposatu zuten eta Tolosako Alkateorde izatera iritsi zen. Hartutako neurritan gudaosteko lehen udal ikastolaren eta udal txistu akademia sortzea izan ziren. Politika alde batera utzi zuen alderdi disziplinara lotua egon behar izanagatik utzi zuen

2008ko maiatzak 17an Tolosako Udaletxeak Areto Nagusian omenaldia egin zion zinegotzi kapa eta kapelua jarri zizkiotelarik.

Egun berean, bere argazki onenez osatutako argazki erakusketa bat zabaldu zuten, bertan Tolosako bizitza kulturala, festa giroa eta gastronomikoa isladatzen zuelarik. Argazkilaritza izan da Jose Mariren beste bokazioetako bat. Nazioarteko kirol argazki txapelketa irabazi zuen, "Frechilla" saria lortuz.

Aktore gisa bere saiakerak egn zituen, Donostiako Argazki Elkarteak zuzenduriko filma batean parte hartu zuen apaiz gisa. Egia esan, argazkia begiratuz, apaiz itxura osoa zuen, baina beste "osagarriak"...

Tolosak 1903. urtean eraikitako zezen plaza bat du eta Jose Marik biziki bizi izan du herri mailako bizipen hau, tauromakian paper ezberdin bete ditu.

Lehenik nobillero aritu zen, argazki honetan ikus daiteke bere ausardia.

ARAMAUTO

Taller multimarca

Venta de vehículos: nuevos, KM-0 y segunda mano

Principales marcas: Peugeot, KIA, FIAT y Alfa Romeo

EURO REPAR
CAR SERVICE

Pol. Ind. Isuses, Pab. 3 - ARAMA **943 80 53 26** aramauto@ercs.es

Tolosako zezen plazan El Cordobés-en zezenketa baten bultzatzailea, toreatzailearen unerik hoberenetan. Chopera ganaduzalearengana hurbildu zen zezenketarako zezenak eskatzera. Garai horretan ohitura zen bezala, ganaduzaleak diru kopuru bat aurreratzea eskatu zion. Jose Marik afizioaz gain, ilusio eta gogoak zituen soberan, baina ez ordea aurreratzeko dirurik. Orduan, gerturatzeko erabili zuen motorra eskaini zion berme gisa. Ganaduzaleak, unkiturik, Jose Mariren jarrera ikusiaz, zezenak bidali zituen dirurik aurreratu gabe. Zezenketa ondoren segituan egin zuen Jose Marik ordainketa. Harrezkeroztik, Choperak Jose Mari gonbidatu ohi zuen bere ganadutegira zezenen probaketetara.

El Cordobes-eko zezenketaren Lehendakaria izan zen Jose Mari, argazkian ikus daitekeen bezala.

Tolosako usadioen jarraitzaile sutsua. Hemen azaltzen dugu 100 baino gehiago dituen ohituretako bat, Iruñea eta Tolosako Txistulari bandek gordetzen dutena. San Juan egunez Iruñeako banda hurbiltzen da Tolosara, eta San Fermin egunez Tolosakoa Iruñeara. San Juan egunean, Jose Marik lore sorta bat oparitzen zion alkateari, lore sorta hori hurrengo urtearate gordeko zuten, egun horretan aurreko urtean oparitako lore sorta lehorra errez. Tradizio bitxia zalantzarik gabe.

Tolosako Babarrunaren Kofradiaren hastapenetan Jose Mari Gorrotxategik garaturiko papera oroitzeko asmoz, Jose Ignazio Telleriarengana hurbildu gara. Telleria jauna Kofradiako lehendakarietako bat izan da Jose Mariren ondoren. Berak dioenez, Jose Mari eta bere lagun zaharra den Tolosako Babarrunaren arteko harremana oso bizia eta estua da, bere lanbideak eraginda (gozogile) jangai denda baten arduraduna, egunero baserritarrekin harremanetan baitzegoen.

1988 urtean, Tolosako Babarrunaren salmenta lur jota zegoen, salneurri oso baxua zuenez baserritarentzat bere ekoizpena ez zen interesgarria. Hori dela eta, baserritarrek bertako eta lagunentzako bakarrik ekoizten zuten. Azokan saltzen zen babarruna kanpokoa zen eta ez zuten zerikusirik Tolosako Babarrunarekin azal lakatza eta irintsua izateagatik.

Kaleko solasaldi batean, zerbait egin behar zela babarrunari buruz esan zidan, gure produktua defendatzeko. Horretarako, Irungo eta Donostiako Kofradiak bezalako kofradia berri bat sortzea interesgarria iruditzen zitzaion. Esan eta egin, egun gutxira Urrutitxo hotelean elkartu ginen eta kofradiaren lehen ideiak finkatzen hasi ginen. Gure artean gauzak argitu ondoren, bilera bat antolatu genuen 1988ko urrian herriko jendea informatzeko asmoz, harrera oso ona izan zelarik. 1989 otsailean "Tolosako Babarrunaren Kofradia" sortu genuen, Jose Mari Gorrotxategi lehen Lehendakari izendatua izan zelarik, nola ez ba.

Egun, Tolosako Babarruna gure gastronomiaren produktu ospetsua da, bertako azokan dir-dir egiten duena eta salneurri duinean saltzen dena. Aldaketa hau jende ugariren parte hartzeari esker lortu da, batez ere Tolosako Babarruna Kofradiak egindako lanarengatik. Hau da Jose Marik bere herriaren alde egiteko izan duen beste ekarpen zehatz eta emankor bat.

Urte luzez gozatu dugu Euskal Gastronomiako Kofradian kofrade eta zuzendaritza kide bezala azaldutako dinamismoaz. San Martin (kofradiako patroia) eguneko Segurako tartak, San Sebastian bezpera eta beste hainbat ospakizunetan berak egin izan dizkigu bazkalburukoak.



AYMA
HERRAMIENTAS, S.L.
Bº Sta Lucía s/n 20709 EZKIO-ITSASO Tel. 943 729070 Fax. 943 729206
Email. ayma@ayma.es http://www.ayma.es

disek
ibaiondo
altzariak
Altzari dendak www.mueblesibaiondo.com
Ofertas de exposición hasta 50%
Barne diseinua
Dekorazioa
Sukaldeak
Proiektuak
Aroztegia
Arotz lanak orokorrean
Altzariak neurrira
PVC, aluminio eta egurrezko leihoak
Katea 5, Antzizar Auzoa BEASAIN - 943 16 40 40
IBAIONDO
AROZTEGIA

2008. urtean ohorezko kofrade izendatu genuen. Bere semea den Rafak bere pausoak jarraitu ditu gure elkartean gozogile gisa eta 2013. urtean ohorezko kofrade izendatua izan zen.

Hemen John Benjamin Toshack-en alboan Euskal Gastronomiako Kofradiaren postre bat zerbitzatzen gogor lanean dakusagu. Hain ederki egin zuten, aspaldiko lankideak ziruditela.

Euskal Gastronomiazko Kofradiak antolaturiko aurreneko Gaztelu Egunetan parte hartu zuen banderadun gisa.

Euskal Gastronomia Akademiak sorreratik Jose Mariren partaidetza aktiboa izan du. Oso eraginkorra zen bileretan, bere ekarpenak gozogintzaren ezagutza bizia eta eguneratuaz gain, gastronomia izan direlarik. Pertsonalki ohorez bete ninduten Jose Mari Gorrotxategik eta Juan Jose Lapitzek Akademia kide izateko proposamena egin zidatenean, Tafallan 2012ko azaroan. Hau ardura!

Abenduko bileretan, sarri egin dio ongi etorria Euskal Gastronomia Akademiak Tolosan. Bere seme Rafak laguntzaile lanak bete ditu maiz sukalde lanetan, bera ere Akademiako kide bihurtu delarik. Bisita hauek beti izan dira eguberritarako turroiak erosteko aukera aparta.

Noizean behin Jose Marik gustuko zituen afizio ezberdinak batera betetzen zituen. Argazki honetan azaltzen dira bere alboan Federico Lipperheide, Euskal Gastronomia Akademiaren Lehendakari sortzailea eta honen emazte zen, Dolores Aguirre Ybarra, izen bereko ganadutegiaren nagusia. Arratsalde alai bat aukera aparta da gastronomiaz, zezenketaz edo edozertaz hitz egiteko.

Germán Arrien lagun kuttuna babestearren Slow Food-eko kide zen eta ekitaldi askotan parte hartu zuen : "Al Gusto" BEC-en, biltzarrak, "Ama Lurra eguna" Bilbon. Azken honetan Jitoma buruzagiaren alboan ikusi genuen une oro. Jitomak ez zekien Jose Marirekin agertuko zenik argazkietan.

2015ko Otsailak 25ean jaso zuen azkeneko errekonozimendutako bat, Basque Culinary Center-ek Ohorezko Pastelgile Maisu izendatu zuenean hain zuzen ere. Zuzenketa txiki bat eginez asko eskertu zuen egin zitzaion izendatzea, argi utzi nahirik bera gozogilea zela eta ez pastelgilea, bere bizitza guztian zehar esan duen bezala. Hura izan zen eguneko anekdota.

Azken finean, agurtzen dugun profesional honek bere baitan osotasunean azaldu ezin daitezkeen alderdi ezberdin ugari biltzen ditu. Gure oroimenean izango ditugu beti alor pertsonalean eta profesionalean nagusi izan diren betiko alaitasuna, umorea eta adiskidetasuna.

Goian bego, José Mari.

Yoana
ILEAPAINDEGIA
GIZON ETA EMAKUME, HAUR ALA GAZTE, EZKONTZA ZEIN EGUNEROKORAKO...
YOANA MUÑOZ / Nekolalde, 24 BEASAIN / 943 106 589

XIRIMIRI TABERNA
MENÚ DEL DÍA
MENÚS ESPECIALES
RESERVAS
COMIDA PARA LLEVAR
Calle Areso 3, trasera • LAZKAO • 943 35 89 17

Margoen salmenta eta biltegia
Almacén y venta de pintura
· Fachadas: renovación, aislamiento térmico, hidrofugantes...
· Industria
· Suelos
· Decoración: interior, exterior, madera, papel pintado...
MB MARGOAK
Distribuidor oficial
MONTÓ
TEONAN
"La mayor poder está en tu habilidad de decidir"
BEASAIN - 943 65 34 23 - 617 348 897
LEGAZPIA - 943 73 03 18
comercial@mbmargoak.com

info@reformaslauburu.com
www.reformaslauburu.com
LAUBURU
REFORMAS
Teilatuak, igeltseritza, pintura, bainu eta sukalde lanak
Tejados, albañilería, pintura, baños y cocinas
Kale Nagusia, SEGURA - 943 10 60 98
618 20 28 79

GABIRIAKO JAIAK

SAN LORENTZO EGUNA

ABUZTUAK 10, LARUNBATA

11:00 Meza nagusia
Ondoren, hamaiketakoa
16:00 Mus txapelketa

ANDRA MARI JAIAK

ABUZTUAK 13, ASTEARTEA

Goiz eta arratsaldez Biribilketa baserriz baserri herriko txistulariekin
17:00 Herriko pelotariek pare bat partidu
